BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

5231

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 18koa, Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearena, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren barruan, banda zabaleko interneten sartzeko diru-laguntzak emateko dena.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduak (EHAA, 147 zk.), Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko otsailaren 18ko Aginduak aldatutakoak (EHAA, 57 zk.), Konekta Zaitez@Banda Zabala Proiektuaren barruan, Interneterako banda zabaleko sarrera-zerbitzuak emateko laguntza-neurriak ezartzen ditu.

Aipatutako Aginduan, diru-laguntzetako programa bat eratzen da. Diru-laguntza horien xedekoak dira, hain zuzen ere, banda zabaleko Internetekin konektatzeko, alde batetik, erabiltzaileak behar duen terminal-ekipoa erostea, eta, bestetik, frekuentzia libreetako (WIFI edo antzekoak) bandako puntu-puntu anitzeko hari gabeko teknologietan oinarritutako instalazio kolektiboak eskuratzea. Halaber, diru-laguntza horiek emateko prozedura eta irizpideak arautzen dira eta laguntzen zenbatekoa eta berau aldatzeko prozedura ezartzen dira.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearen 2013ko urriaren 22ko Ebazpenaren bitartez, 2013ko ekitaldirako laguntzei dagokienez guztira aurreikusi den zenbatekoa onartu da. Ebazpen horretan guztira ezarri den zenbatekoa berrogeita bost mila (45.000) eurokoa da. Ezarritako konponbide teknologikoari dagokionez, erositako ekipo terminal bakoitzeko aleko zenbatekoa berrehun eta laurogeita bat (281) eurokoa izango da.

Halaber, esandako Agindu horren 10. artikuluak Itelazpi izendatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erakunde laguntzaile bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu bategina onesteko den azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz eta erakunde laguntzaileak egindako proposamena ikusi ondoren, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Banda zabaleko Internetera sartzeko diru-laguntzen esleipena onuradunei jakinaraztea, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren esparruan, honi erantsita doakion eranskinean jasota dauden kopuruetan.

Bigarrena.– Aipatutako 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 13.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Itelazpi baltzu publikoak izango du onuradunak jakinarazteko eta operadoreari horien konturako dirulaguntzak ordaintzeko ardura.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Ogasun eta Finantzetako sailburuari hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eta baita ere erakunde onuradun bakoitzari honako honen berri emateko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 18a.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea,
CARMELO ARCELUS MÚGICA.

ERANSKINA

KONEKTA ZAITEZ@BANDA ZABALA

ONURADUNEN ZERRENDA – ESLEITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eskatzailea	Diru-Laguntza *(Eurotan)*
1.– Abarrategui Desoitagoena German	281
2.– Agroturismo Pagoederraga	281
3.– Aguirrezabalaga Manzarraga Iñaki	281
4.– Alberdi Iturrino Ana Julia	281
5.– Alfonso Serantes Saborio	281
6.– Angoitia Gorostiza Leire	281
7.– Aroa Etxebarria Barrañano	281
8.– Arrieta Barrutia Jaime	281
9.– Aurrekoetxea Soraluze Alaitz	281
10.– Blanco Perez Manuela	281
11.– Campos Caro Gabriela	281
12.– Carballo Carballo Jokin	281
13.– De Blas Gabiola Marga Alejandra	281
14.– Eguzkiñe Iturbe Landa	281
15.– Elgezabal Sano Jon Gorka	281
16.– Fernandez Urrutia Josune	281
17.– Gallego Fresnillo Francisco Javier	281
18.– Garaialde Maiztegi Iñigo	281
19.– Garcia Ikuza Inazio	281
20.– Gauna Jimenez Igor	281
21.– Gestoso Gutierrez Zoe	281
22.– Goitia Balerdi Conchi	281
23.– Guinea Abil Jose Manuel	281
24.– Hello Urdaibai S.L.l	281
25.– Hermanos Laredo Garrido S.C.	281
26.– Jose Ignacio Agirre Eguen y Otro Cb	281
27.– Landarbide Zahar Sc	281
28.– Larrondo Etxebarria Egoitz	281
29.– Latasa Ibarluzea Irantzu	281
30.– Legarreta Diaz M.ª del Mar	281
31.– Lekue Burgoa Maite	281
32.– Margarita Mosteiro Baloira	281
33.– Markaiena, S.L.	281
34.– Medinabeitia Rueda Alberto	281
35.– Mijangos Canales Mar	281
36.– Narbaiza Telleria Maria Angeles	281
37.– Nebreda Diaz de Espada Alvaro	281
38.– Olarreaga Aguirre Maria Jesus	281
39.– Ramila Gabiria Libe	281
40.– Ricondo Teran Angel Andres	281

Eskatzailea	Diru-Laguntza *(Eurotan)*
41.– Toth . Peter-Paul	281
42.– Urien Uruburu Ignacio	281
43.– Urnietin Kebin, Sl.	281
44.– Urrutia Rueda,Sociedad Civil	281
45.– Yon Kepa Agirre Goikoa Burgera	281
46.– Zabalik-Bidea Correduria de Seguros S.L.	281
47.– Zuluaga Bilbao Eneritz	281